


## **Gazteriaren erdia baino gutxiago sentitzen da europarra**

### **Europar sentimendua zabaldu da azken lau urteotan**


Europako eguna dela-eta (maiatzak 9), Euskadiko gazteen artean europar-sentimenduaren hedapenari buruzko datuak plazaratu nahi ditu [Gazteen Euskal Behatokia](#)k.

Horretarako, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri zenbateraino sentitzen diren europarrak galdetu diegu. Galdera hau Gazteen Euskal Behatokiaren hainbat inkestatan errepikatu da, azkenekoa 2016ko lehen hiruhilekoan eginikoan. Bertan emandako erantzunak hartu ditugu oinarri.

Emaitzak ikusita, esan dezakegu Euskadiko gazteen erdiak baino gutxiago (% 45) sentitzen direla oso edo nahikoa europarrak. Izan ere, gehixeago dira europarrak sentitzen ez direnak (% 49), horrelako sentimendua dutenak baino (% 45). Gainerako % 6k ez dute iritzirik azaldu.



Bere burua oso edo nahikoa europartzat jotzen duten 30 urtetik beherako gazteen ehunekoak gora egin du 2016an, 2012ko jaitsiera izan ondoren (orduan krisialdi ekonomikoaren ondorioz Europak ezarritako politika ekonomikoaren kontra ageri zen biztanleria), eta orain 2000 urtean hasitako seriearen punturik altuenean kokatzen da gazteen europar-sentimendua.



Sentimendu europarra barneratuagoa dago 20 urtetik beherakoen adin horretatik gorakoen artean baino.

Eta zabalduen dago Gipuzkoan bizi diren gazteen artean. Arabarrek, aldiz, gutxien barneratu dute.

Zenbateraino sentitzen duzu zure burua europarra?							
ADIN TALDEAK	GUZTIRA	ADIN TALDEAK			LURRALDE HISTORIKOA		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
(%)							
Oso europarra	<b>11</b>	13	9	10	10	13	7
Nahikoa europarra	<b>34</b>	39	31	33	31	31	41
<b>EUROPAR-SENTIMENDUA (Oso+Nahikoa europarra)</b>	<b>45</b>	<b>52</b>	<b>40</b>	<b>43</b>	<b>41</b>	<b>44</b>	<b>48</b>
Ez oso europarra	<b>28</b>	25	31	28	32	28	26
Batere europarra ez	<b>21</b>	15	23	25	21	22	20
Ed/Ee	<b>6</b>	8	6	4	6	6	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	100	100	100	100	100	100